



Nekazal turismoa COVID 19 garaian

10 LABORE OARSO:
"hiru urte ta erdiko
uzta oparoa"

16 EHLG: Un actor
comprometido con
la instalación y la
transmisión

26 Bizkaiko Golkoa,
euskar herritarren
arrain kontsumoa
asetzeko gai

3 EDITORIALA:

- Un plan estratégico de desarrollo para la siguiente década

4 IRITZIA:

- Baserri munduan eraso matxistarik ez!!
Ametz Ladislao
- Sutearo un proyecto para personas
Jose Manuel Nuñez Egia eta Javier Arriaga Goirizelaia "Txiplas"

6 ERREPORTAJEA:

- Nekazal turismoa Covid 19 garaian

10 BERRIAK:

- EHLG, un actor comprometido con la instalación y la transmisión en Iparralde

13 BERRIAK:

- ¿Dónde aumenta más la producción de leche ecológica y que precios se pagan?

14 ERREPORTAJEA:

- Labore Oarso Elkarte

17 BERRIAK:

- Futuro de las zonas rurales

20 IPAR EUSKAL HERRIA:

- Iparraldeko bortuak

23 JUANTXURI AGURRA:

24 NAZIOARTEA:

- La seguridad alimentaria y la nutrición en el mundo

26 IKERKETA

29 GOMENDIOAK ETA FORMAZIOA

Un plan estratégico de desarrollo para la siguiente década

Una de las conclusiones que mayor consenso refleja sobre las consecuencias de la pandemia derivada del Covid-19 es que debemos hacer las cosas de otra manera. Las estrategias derivadas del desarrollo en base a la globalización han llegado a su límite, y es imprescindible un cambio de paradigma de la agricultura intensiva a sistemas agroecológicos diversificados. Y para posibilitar un cambio real es necesario articular un plan estratégico que permita llevar a cabo la transición hacia la agroecología. Partiendo de la realidad actual, contamos con indicadores suficientemente sólidos para poder visualizar de que la actividad agraria puede y debe jugar un papel determinante en la producción de alimentos de calidad (salud), incorporación de nuevas personas a la producción (empleo), y avanzar en el enfriamiento del planeta (crisis climática). Es hora de actuar con perspectiva y ambición, y no limitarnos a gestionar el día a día. La avanzada edad de la mayoría de las personas productoras es una realidad, que al mismo tiempo nos obliga a plantear ambiciosos planes de incorporación a la producción y puede acelerar los procesos de cambio en el modelo de producción, dotando de mayor intensidad al tránsito hacia una producción sostenible. Puestos a cuantificar es factible hablar de incorporar 500 nuevas personas al año en el conjunto de Euskal Herria como punto de partida, y aumentar en un 25% esa cifra de incorporaciones cada dos años. Estamos hablando de incorporar cerca de 8.500 personas a la actividad agraria durante los siguientes 10 años, cifra que permitiría poder acometer un relevo generacional sólido y poner los cimientos hacia una producción más sostenible. Un plan de estas

características debe contar con bases sólidas, partiendo de que las nuevas incorporaciones no pueden ser pasto de la precariedad y que es necesario garantizar un ingreso mínimo mensual (la referencia de 1200 euros podría ser válida); y un acompañamiento efectivo en el proceso de incorporación de los primeros cinco años (el modelo de Euskal Herriko Laborantza Ganbara puede ser una referencia) más profundo que el de gestionar el cumplimiento del expediente. Y paralelamente hay que garantizar una pensión mínima (la referencia de 1080 euros también es válida) a las personas que se jubilan, para poder ejecutar una transmisión efectiva en la producción y no tener que seguir manteniendo la actividad. Sobre la base de estos objetivos de incorporación se pueden desarrollar planes de incorporación comarcales, sin que tengan que ser lineales sino que respondan a estrategias alimentarias locales en procesos de fortalecimiento de los mercados internos. Los avances de los últimos años hacia un consumo de alimentación local (grupos y cooperativas de consumo, comedores colectivos, mercados semanales, ...), debemos consolidarlos con nuevas incorporaciones a la producción. La actual fase de elaboración de planes estratégicos para la siguiente PAC es una oportunidad para articular las herramientas y los medios necesarios para un proceso de este calado, y desde ETXALDE pretendemos profundizar en detalle sobre un plan estratégico de estas características durante los siguientes meses. Es el momento de concretar la metáfora del KM 0 en claves de empleo, alimentación de calidad, desarrollo sostenible, y Soberanía Alimentaria.



ETXALDE
nekazaritza iraunkorra



etxalde@etxalde.eus
www.elikaherria.eus

Lege Gordailua:
SS 50-2015

Editorea: **Etxalde Nekazaritza Iraunkorra Elkarte**
Diseinua eta maketazioa:
Diseinu eta Komunikazioa AULESTI S.L.
Inprenta: **Gertu S. Coop.**
Maiztasuna: **Bihilabetekaria**
Aleak zenbakiko: **4.650**

BASERRI MUNDUAN ERASO MATXISTARIK EZ!!



Amets Ladislao

Jose Manuel Nuñez Egia y Jabier Arriaga Goirizelaia "Txiplas"

Expresidentes de EHNE-Bizkaia



Uztailaren 5ean jakin genuen. Errigoitin, gizon batek bere bikotekide ohia erasotu zuen, sulfatadorearekin. Emakumea berarengana hurbildu zela, sulfatoz bete zuen, aurpegian eta eztarrian zauriak eraginez.

Eraso honek gauza asko mugitu dizkigu.

Konturatu egin gara zelako estereotipoak genituen gai honen inguruan. Gaur arte, sinistuta geunden eraso matxistak landa eremuan jasaten zituztenak emakume nagusiak zirela. Bakarrik bizi ziren emakumeak, babes sozial haundirik ez zeukatenak... Talde honetan ere emakume migranteak sartzen genituen. Errekurtso ekonomiko eta sozial haundirik gabeko emakumeak. Zaintza lanetan dabiltzaten emakumeak.

Modu baten, gu, ez ginen afektatuak sentitzen. Emakume gazte edo ez ain gazte, zuri, klase ertainekoei, ez zitzaizkigun gauza hauek gertatzen. Nahiz eta baserrian lan egin, nahiz eta landa eremuan bizi. Beste batzuen arazoak ziren hauek.

Baina uztailak 5ekoa desberdina izan zen. Gu erraz identifikatu gintezkeen emakume bati gertatu zitzaion hau.

Eta ganera, erasotzailea, baserri lanetan aritzen da. Saskiak egiten ditu astero ortu ekologiko baten.

Ahoa betetzen zaio gure diskurtsoarekin eta agroekologia eta halako hitzak erabiltzen ditu bere egunerokotasunean.

Artikulu honetan argi eta garbi esan nahi dugu gure erudian ez ditugula eraso matxistari onartzen!

Elikadura burujabetza lortzeko beharrezkoa den nekazaritza iraunkor honetan matxismoa, arrazismoa, homofobia, fasismoak ez du lekurik.

Eredu aldaketaz hitz egiten dugunean, praktika tekniko konkretu batzuetaz haratago doan eredu batez hitzegiten ari gara. Ez da nahikoa gure ortuetan errota egitea, ongari kimikorik ez erabiltzea... Ez da nahikoa bertako arrazak erabiltzea edo salmenta zuzena egitea. Guzti hauek aspektu teknikoak dira, eta oso ondo daude.

Baina, eredu aldaketaz hitzegiterakoan, balore aldaketaz hitzegiten ari gara, beste harreman mota batzuei buruz ari gara, beste etika batez... Benetan eredu aldaketa emango da, gaur egungo balio biozida, indibidualista, matxista, kapitalista hauei buelta ematen diegunean.

Ez digu balio itzelezko ortu bat edo korta bat eukitzeak, gero holako jarrerak emango badira.

Beraz, argi eukin ezazue, erasotzaileok ez zarete ongi etorriak! Ez zaituztegu gure eremutan nahi, inoiz ez zarete baserri mugimeduaren parte izango. Argi eta garbi esan behar dugu inolako zalantzarik gabe.

Konturatu gara ere, ze gutxi lantzen dugun gai hau, ze espazio gutxi daukaten gure agendatan. Ez dugu gaia ikutzen, ez dugu hitz egin nahi.

Etorkizunari begira, argi daukagu formakuntza eta protokoloak beharrezkoak izango direla gai hauek behar diren bezala tratatzeko eta ekiditzeko.

Gu erabat prest gaude honetarako, eta eraso matxistak landa eremuan desagerrarazteko lanean irmoki jarraituko dugu.

Gora borroka feminista!



SUTEARO un proyecto para personas

Tenemos que reconocer a pesar de haber participado desde nuestra época de presidentes de Ehne- Bizkaia en la puesta en marcha del proyecto, con todo el apoyo que en aquellos momentos se pudo dar a sus dinamizadores, desde lo económico hasta lo jurídico, u otro tipo de necesidades, jamás habiésemos sido capaces de valorar el proyecto en toda su dimensión si no hubiera sido por nuestros respectivos incendios.

Frente a la visión de cualquier aseguradora, que ante el incendio empieza a observar donde puede recortar la compensación. En un momento de suma debilidad psicológica y anímica como afectado por un incendio que destroza uno de los bienes más importantes de una persona, la casa.

La respuesta además de inmediata, es "tranquilo, que lo que tenías, lo vamos a reponer".

En un mundo y en una cultura donde hemos asumido que la rentabilidad económica es el primer principio, que alguien piense en los afectados, no es lo usual. Es una demostración y más en estos tiempos de pandemia que solamente desde la solidaridad y la colaboración entre personas es posible enfrenarse a un sistema que solo piensa en el beneficio de los directores de orquesta.

Este es, un ejemplo de que es posible construir alternativas viables y eficaces.

No nos queda más que dar las gracias a todos los integrantes del proyecto. A los iniciadores con EHNE-Bizkaia y Kepa a la cabeza, por su visión, a los colaboradores, a sus trabajadoras y trabajadores por haber sabido actualizar el proyecto junto a la junta directiva,

Eskerrik asko!





NEKAZAL TURISMOA COVID 19 GARAIAN

AZKEN UNEKO ERRESERBEK ETA EZEZTATZEK MARKATUTAKO UDA

COVID-19ak eragindako pandemiaren lehen agerraldiaren ondoriozko ziurgabetasunari bigarren olatua gehitu zaio udan. Uztailetik aurrera kasuek eta ospitaleratzeek gora egin dute, eta hori aurretik zegoen krisi egoerari gehituta, oso kaltegarria izan da sektore guztietarako, baita nekazal turismorako ere.

Hala ere, koronabirus berri honen kasurik gehienak jende dentsitate handiak dauden hiri eta herrietan egonik, asko izan dira landa turismoa aukeratu duten bezeroak, jende pilaketetatik ihesi. "Ostatuak landa eremuetan kokatuta egotea gure abantaila da eta bezeroak hori bilatzen du momentu honetan", azaldu du Idoia Ezkurdia Nekaturreko gerenteak. Hala, landa ostatuaren %98 zabalik egon da; "itxita egon direnak ostatua dagoen etxebizitzan bertan jende heldua bizi delako edo langile profileko bezeroak turista arruntetatik ez nahasteko logela batzuk itxi dituztenak izan dira", zehaztu du Ezkurdia.

Baina establezimenduak irekita egoteak eta landa eremuan kokatuta egoteak ez du lortu bezeroen ziurgabetasuna guztiz gainditzea: "Aurten, bezeroek, inoiz baino gehiago, haien egoera zein izango den ez dakite, bai pandemiaren eboluzioagatik baita pandemiak eragingo duen egoera ekonomikoa dela eta". Hori dela-eta, azken uneko erreserbak eta ezeztatzeak izan dira aurtengo udako markak.

Okupazio tasa, behera

Aipatutako egoera horrek Nekaturreko nekazal turismoen okupazioa 15 puntu jaitea ekarri du iazko udarekin alderatuta. Idoia Ezkurdia azaldu duenez, erreserba kopurua gutxitu da eta egiten direnak azken ordukoak izatea eragin du. Hasiere batean, mugikortasun mugaketak bukatuko zirela iragarri zutenean, erreserba eskaera asko jaso zuten, baina uda betean agertzen joan diren COVID-19 kasuek (bai Euskal Herrian baina batez ere Katalunian eta Madrilen) eta krisi ekonomikoa "kalte handia" egin dietela aitortu du.

Hala ere, badira turismoa egitera animatzen direnak eta horretan landa turismoa aukeratzen dutenak. Nekaturreko bezeroak batez ere Euskal Autonomia Erkidegokoak izan dira uda honetan, baina ez dira falta izan nafarrak, ezta estatuko beste toki batzuetakoak ere, hala nola katalanak, madrildarrak, valentziarrak eta aragoitarrak.

Egoera berezira moldatzen

Pandemia garai honetan COVID-19aren kutsadura ahalik eta gehien murrizteko kontingentzia plana ezarri behar izan dute landa ostatuetan ere: garbiketa plana indartu, hornikuntza hutsa diren elementuak murriztu, bezero guztiek erabiltzekoak diren espazioak birmoldatu taldeen artean segurtasun distantzia mantentzeko, bezeroen eskura gel hidroalkoholikoa eta maskarak jarri eta kontaktu fisikoa murrizteko tresna digital ezberdinen erabilera areagotu, hala nola bidaiarien erregistroa on line eginez, euskarri turistikoak digitalizatuz eta ordainketa modu birtualak ezarri.



LA SEGUNDA OLA DEL COVID 19 TAMBIÉN HA IMPACTADO EN EL TURISMO RURAL

Una bajada de 15 puntos respecto a los datos de ocupación del año pasado, y una constante sensación de incertidumbre, que se ha traducido en un gran aumento de cancelaciones y de reservas de última hora han sido las principales consecuencias que ha dejado la segunda ola del Covid 19 en el turismo rural de Euskal Herria. Con todo, se puede afirmar que, dentro de lo golpeado que ha resultado, en general, la actividad turística, ha sido precisamente el turismo rural el que mejor ha capeado esta situación, pues los índices de ocupación hotelera y el turismo urbano se han visto mucho más afectados.

En el caso de la CAV, y de la asociación Nekatur, el 98 % de los caseríos y/o casas de turismo rural han estado abiertos este verano. "La incidencia de los brotes, principalmente, se ha dado en los grandes núcleos urbanos, por lo que mucha gente ha optado por el turismo rural, buscando evitar masificaciones, y también el contacto directo con la naturaleza, tan añorado durante el periodo de confinamiento", según explica Idoia Ezkurdia, gerente de Nekatur.

Respecto al perfil de los visitantes de este verano, la mayoría de los clientes de Nekatur provenían de Hego Euskal Herria, aunque también ha habido visitas de Catalunya, Madrid, Valencia y Aragón.

En cuanto a los cambios de protocolo en las casas de turismo rural, desde su reapertura en mayo, destaca la modificación de los espacios de uso común, aumentando las distancias de uso entre los grupos, la habilitación de protocolos de limpieza y desinfección más exhaustivos, dispensa de mascarillas y gel hidroalcohólico a los clientes, y el uso exclusivo de pagos y reservas mediante métodos virtuales.

Etxalde gehiengoarentzat urte ona da 2020ko urtea



Accueil Paysan Biarno-Euskal Herria elkarte

Leire Atchoarena

Harrera etxaldeak, nekazaritza edo abeltzaintza lanak egitearekin batera, turistak hartzeko egokitu diren etxaldeak dira. Pirinio Atlantikoetako hamar harrera etxaldek osatzen dute Accueil Paysan elkarte. Horietatik zortzi Euskal Herrikoak dira, eta bi Biarno-koak. Okupazio zenbaki zehatzak ezin izan badira jaso ere, "uda ona" izan da hau Ipar Euskal Herriko harrera etxalde hauentzat.

Nolako udara izaten ari da Accueil Paysan etxaldeetan aurreko urteetakoekin alderatuz?

Etxalde gehiengoarentzat urte ona da 2020ko urtea. Gehienek Accueil Paysan saretik geroz eta erreserba gehiago lortzen dituzte. Bat edo bik, aldiz, kontrarioa.

Etxalde guztiak daude martxan?

Accueil Paysan Biarno Euskal Herria elkartearen hamar etxalde kontatzen dira. Bi Biarnoan eta zortzi Euskal Herrian. Denak martxan dira. Gehienek udan dute okupazio gehiena bainan urte osoan edo maiztatik urrirat idekiak dira.

Nongo turistak ari dira etortzen? Betiko lekuetatik edo berrietatik?

Frantzia osotik etortzen dira jendeak. Accueil Paysan sarearekin usatuak direnak gehienetan.

Lan egiteko modua zertan aldatu da pandemiaren eraginez?

Pandemiaren eraginez beste aktibitateetan bezala lan egiteko moldea adaptatu izan behar dute. Maskak jantzi behar dituzte eta harrera tokiak desinfektatu gehiago.

Etxaldeak jende dentsitateetatik urrun egotea "plus" bat da garai hauetan?

Seguraski.

Nola ikusten dituzue datozen hilabeteak?

Urtero bezala turismoa ttipitzen hasten da urritik goiti. Pentsatzen dugu aurten ere berdin izanen dela.

Aurten egonaldi motz gehiago izan dugu eta hutsuneak geratu dira

Balkonpe landa turismoa (Udabe, Nafarroa)

Idoia Auza

Txahal-okela ekologikoaren ekoizpena eta landa turismoa lantzen dituzte Idoia Auzak eta senarrak Basaburua bailaran kokaturiko Udabe herrian. 2007an hasi ziren apartamendu bat eskaintzen beraiek bizi diren Palazio Etxearen alboan, eta 2012an eraiki zuten bi solairuko etxean kokatu zituzten beste bi apartamendu: Balkonpe I eta II. 2016a arte esne-behiekin ari ziren, eta ordutik hona, haragitarako behi eta txahalekin.

Abelzaintza utzi barik, 2007an landa turismoan hasi zineten. Harrez gero nolako emaitza izan du zuentzat turismo lanak?

Gorakako marra izan zen urtero 2015a arte; 2008ko krisia ere ez genuen nabaritu. 2015an jaitsieratxo bat izan zen, eta gero mantentzera jo du.

Nola joan da aurtengo uda?

Maiatzaren 11n ireki genuen, eta Iruñeako jendea etorri zen berehala, batik bat haurrekin, haize bila. Uztailean gurean aurten mugimendu gehiago izan da, lehenengo hamabostaldian ere (normalean ez bezala). Eta abuztua, ondo. Baina denbora guztian erreserben ezeztapenak eta azken uneko erreserbak izan ditugu. Uda ondo salbatu da; ez beste ur-

teetan bezala, baina ondo. Eta irailerako ere lehen bi asteak hartuta daude, Iruñea aldeko jendearekin.

Zer eragin dizuete azken uneko hainbeste kantzelazio eta erreserba egoteak?

Azken unean erreserbak bertan behera geratu arren, berehala bete dira egunak, baina egonaldi laburragoekin. Aurten egonaldi motz gehiago izan dugu eta hutsuneak geratu dira tartean.

Covid 19ak eraginda ardura gehigarria izango zenuen garbiketa eta desinfekzioarekin...

Bai, denbora gehiago eta kontu gehiago eskaini behar izan diot desinfekzioari egonaldien artean. Beti kezka egon gara... Bestalde, gure ezaugarri

bat izan ohi da datorren jendearekiko tratatu hurbila, baina aurten hotzagoa izan da, hala-beharrez.

Baserriko jarduera ezagutzeko ere eskaintzen diezue aukera bisitariei, ezta?

Bai, baina hori ere moldatu behar izan dugu aurten. Baratzean aritzeko aukera eta oilo, behi eta ardiei bisitak egitera-rena bertan behera utzi ditugu.

Zer nabarmenduko zenuke aurtengo bisitarien esan dizuetenaz?

Batik bat umeekin etorri direnek askatasuna eskertu dute; hau 40-45 biztanleko herri txiki eta lasaia da, eta mendi ibilbideak nonahi ditugu...



La gente no hace reservas a largo plazo, están esperando hasta última hora

Turismo rural Guikuri (Murua, Araba)

Txema Aginako

Guikuri, un alojamiento rural compuesto por cuatro apartamentos independientes y gestionado por cuatro personas, se encuentra en la localidad alavsa de Murua, en el término municipal de Zigoitia.

¿Cómo ha ido el verano en Guikuri?

Ha sido un poco raro. Mientras estuvimos cerrados por el confinamiento, cayeron todas las reservas que ya teníamos. Así y todo, en verano se ha llenado. Han sido reservas de última hora.

También habrá habido cambios en la procedencia de los visitantes...

Sí. Los años anteriores venía gente de diferentes lugares de Europa, pero ahora ha sido gente de aquí. La mayoría han sido de Euskal Herria; también de Valencia, Murcia... pero mucho menos.

¿Cómo os ha afectado la pandemia en vuestro trabajo diario?

Hemos aumentado las medidas de higiene en los apartamentos y en las mesas del jardín, y hemos

cerrado el spa. Por lo demás, como no tenemos zonas comunes, no hemos tenido que realizar modificaciones.

Habéis cerrado por varios meses. ¿Habéis recibido alguna ayuda?

Sí, el ayuntamiento de Zigoitia nos ha dado una ayuda.

Habéis salvado el verano. Y de ahora en adelante, ¿qué perspectivas tenéis?

Incertidumbre. Se nota en las reservas. La gente no hace reservas a largo plazo; están esperando a última hora. Hay miedo. Por lo tanto, no sabemos cómo serán los próximos meses.





LABORE OARSO ELKARTEA

la mila bazkide, hiru urte eta erdiko uzta oparoa

Oiartzungo Ugaldetxo auzoko futbol zelaiaren ondoan, bera bakarrik, hortxe dago Labore Oarsoren eraikina, aparkalekuarekin. Ez dauka apartean marka guztietako hipermerkatu eta saltoki handiak; "eskualde honetan denak daude, bider bi, horregatik argi geneukan bertako eta kalitatezko produktuek ere leku handia eta txukuna behar zutela". Jon Legorbururen lehen hitzak dira (Lezo, Gipuzkoa, 1968), Labore Oarso Elkarteke batzorde eragileko sei kideetako bat, hasieratik. Gogotsua du jariora, eta bazkide egin nahi duen edonori, bisitan datozen eskualde desberdinetako eragileei edo kazetariari grina berekin azalduko die proiektua: "benetan pozik gaude orain arte lortutakoarekin".

Ez da gutxiagorako. 2017ko martxoan atek ireki zituenetik, Labore Oarsok ia 1.000 bazkide izaterainoko bidea egin du; hasieran 150 ziren. Hasieran eskaintzen zituzten 200 produktuetatik 2.000ra igaro dira. Langile bakarra eta batzorde eragileko kideen ordu zenbaezinak ziren hasierako motorra; orain sei langileren artean betetzen dituzte lau lanpostu oso, "eta gu ere hemendik ibiltzen gara, baina egunerokotasunaren kudeaketa langileek daramate".

Zenbaki esanguratsuak dira, arrakastaren arrastoa marrazten dutenak. Baina ez soilik arlo kuantitatiboan; alde kualitatiboari erreparatuta, nabarmendu daiteke ia 1.000 bazkide horietatik 800 baino gehiago Oarsoaldea eskualdekoak direla, 400dik gora Oiartzun bertakoak. Eta ekoizle hornitzaileei dagokionez, ia 200 dira: "gero eta ekoizle txiki gehiagori, bakarkakoei ere erosten diegu produktua". Saiakera kontzientea egiten ari dira produktu ekologikoen banatzaile handiei gero eta eskari gutxiago egiteko, eta gehiago zuzenean ekoizle txikiei. Zenbaki kualitatiboan baita, beste datu garrantzitsu bat: Labore Oarson eskaintzen diren produktu guztien %65 Hego Euskal Herrikoa da, ez urrunagokoa. "Poliki-poliki ari gara Ipar Euskal Herriko produktuak ere eskaintzen, baina traba burokratiko handi samarrak ditugu oraindik, fakturatzeko moduekin-eta; gainditu nahi dugun arazoa da hori", dio Legorburuk.

0 Km eta prezio justua, Laboreren bi oinarriak

"Guk bertokoari eta ekologikoari (zigilua izateari) bi aldeei garrantzia bera ematen diegu, eta baditugu ekologikoan eginak ez diren produktuak ere, baina bertokoak direnak". Errigora produktuen adibidea erakutsi digu: elkarren alboan daude konbentzionalen eta ekologikoan ekoiztutako Erriberako piper, menestra edo orburu poteak, Errigora ekimenerako egiten duten prezio berean.

0 km kontzeptuari dagokionez, herriko eta eskualdeko ekoizleei lehentasun osoa ematen die Labore Oarsok, eta bi adibiderek ere erakutsi digu: arrautza ekologikoak herriko ekoizle bati hartzen dizkiote, denak, eta gazta ere, hein handiaren, bertako artzain bati. "Hori da, gure ustez, Oarsoaldeko lehen sektoreari benetan laguntzeko modua: haiek jarritako prezio justuan eta kantitate oparoan saltzeko denda hau haien eskura jartzea". Ekoizleek beraiek prezioa jartzearena da, hain zuzen ere, Labore Oarsoren urrezko erregela bat.

Baina zerk osatzen du Labore Oarsoren katalogoa eta zerk ez? Denetarikoa erakutsi digu Jon Legorburuk 300 metro koadroko dendan, zabal, argitsu eta txukun antolatuta. Baina horrek ez du esan nahi "edozer" saltzen dutenik. "Asko aztertzen ditugu produktuak, hori da batzorde eragilearen zereginetako bat", dio. Izan ere, bazkideren batek halako produktua edo marka izatea eskatzen badu, aztertu egiten da: "batik bat nondik datorren, ezaugarri bereko hurbileko produkturik ba ote dagoen...". Laboreren bi zutarriekin eta dendaren kontzeptuarekin bat egitea bilatzen da, beraz; "bestela galdu egingo ginateke". Beraien produktu izarrak, gehien saltzen direnak, bertako barazki freskoak eta granelean saltzen dituzten lekale eta laboreak dira, ogi eta esnekiekin batera.

Prezio justuarekin batera, langileentzako baldintza justuak izatea ere bilatu dute. Bazkideen asanbladak erabakita, langileek 1.200 € gehi Gizarte Segurantzara jasotzen dute ordainsari, eta oporrak hartzeko, langile bakoitzak eskatzen duenaren arabera antolatzen dituzte txandak. Kudeatzaile bat eta bost langile dira, lau lanpostu osoko jardunak betetzen dituztenak, "denda goiz eta arratsaldean irekitzen da asteleheneratik ostiralera, eta larunbat goizetan ere bai, eta dendako txandak banatu egiten dituzte, egun osoa hemen oso gogorra baita".



Eskualdean errotuta eta auzolanean oinarrituta sortu zen

2016an hasi zen eskualdeko lagun talde txiki bat gai honi bueltak ematen. "Herrigintzatik gentozen, eta ikusten genuen Oarsoaldeko lehen sektorea indartzeko bide sendoagoen premia zegoela, gainera kontsumo eredu jakin batek guztiz inguratuta egonik, merkatal guneek inbadituta erabat". Asteroko otar edo saskien ereduaren gainbehera zihoala ikusi zuten haien inguruan, "jendeak nahi du bertoko produktua, baina haiek nahi edo behar dutenean, behar dutena". Ekoizle txikiak azokak ere aukera estua zirela baloratu zuten. Eta, beraz, eskualdean errotuta egongo zen kontsumo arduratsuko gune bat, "handia eta txukuna", irudikatzen hasi ziren. "Hasieran errotat hartu gintuen hainbatek 1.000 bazkidera iristearen helburua aipatzean, egia esan...".

Iruñeako Landare Elkartea bisitatu zuten, eta ikusi zuten horrelako zer edo zer, baina Oarsoaldeko beharretara egokituta, egingarria zela. Elkarte izaera juridikoa hartu zuten, lehen unetik funtzionatzen hasteko sinpleena zelako.

Bideragarritasun plana egiterakoan, lehenengo hiru urteetarako galerak aurreikusi genituen, baina gero ez dugu galerarik izan inoiz.

Eraikina egin zegoen, garai batean lasto biltegia eta geroago Oiartzungo Gaztetxea izana zena, baina 7 urte hutsik zeramana. "Eraikina atondu, instalazioak jarri, margotu, espazioa antolatu eta altzariak egin... dena auzolanean egin genuen". Orain ere, konponketak edo moldaketak egiteko, edo eta inbentarioa egiteko, bazkideen artean auzolan deia zabaltzen dute, modu boluntarioan aritzeko, "eta beti agertzen dira 25-30 bat lagun, oso ondo". Proiektua abiatzeko, hasierako erosketak egiteko eta abar, 40.000 euro behar zituzten eta horiek ere modu kolektiboan ase zituzten, 40 bazkide 1.000na euroren abalista eginik.

Oarsoaldean, berriz, denboran bateratsu sortu ziren Labore Oarso proiektua eta hainbat ekoizpen proiektu, hala nola Erika Kooperatiba eta Arraztalo Oiartzunen, Urrullo Lezon (4 Ha. barazkigintza ekologikoan), edo eta eskualdeko baratze komunitarioak. "Behemendi landa garapen elkarteak esaten digu Oarsoaldea puntakoa bihurtu dela lehen sektorearen biziberritzean". Hasieran, ordea, ez zuen jaso Labore Oarsok administrazio publikoaren laguntzarik. Bai gerora. Oiartzungo Udala da, gehien bat, laguntzen diena, baita Behemendi eta Oarsoaldeko Garapen Agentzia ere. "Behemendik Aldundiaren bidez hotz-kamarak erosten lagundu izan digu, eta Garapen Agentziak sukaldea muntatu zigun. Ikastarotarako Garapen Agentziak berak ere baliatzen du, guk bezala".



Ekintzen atala, komunikazioa eta... etorkizuna

Labore Oarso denda bat da. Baina kontsumo arduratsuen inguruko eskualdeko eragile bizia ere bada. Orain, Covid 19a dela-eta, itxita daukate, baina bestela, sukaldaritza ikastaroetarako gunea izan ohi da sukaldia, dendaren alde batean txertatuta dagoena. Hitzaldiak ere sarri antolatzen dituzte, "sendabelarrak, haurren elikadura... denetariakoak". Bertako ekoizleen azalpen saioak ere antolatzen dituzte: "garrantzitsua da erosleok jakin dezagun zer lan dagoen barazki sorta baten edo jogurt baten atzean". Antolatzen duten ekintza oro ondo komunikatzen jartzen dute ahalegina, "sare sozialak asko lantzen ditugu, ikusi baitugu jende askorengana iristen garela modu horretan".

Euskara da Labore Oarson hizkuntza nagusia.

Web gunea ele bietan daukagu, baina gure bazkide gehienak euskal hiztunak dira, eta gure eguneroko harremanak, errotulazioak eta abar euskaraz dira, modu naturalean

- la **1.000** bazkide
- **2.000** produktu
- **%65** Hego Euskal Herriko produktuak
- la **200** ekoizle-hornitzaile
- **6** langile (4 lanpostu oso)
- Kuota: **50 € urtean**
- **300 m2** denda eta biltegia
- + **150 m2** bulegoak, trastelekua eta umeen txokoa

la 1.000 bazkideko langara iristear, etorkizunari buruz pentsatzen hasita daude. "Gure muga gertu daukagu: denda honekin 1.200 bazkide hornitu ditzakegu gehienez, eta biltegia jada txiki geratuta daukagu". Hau Oarsoalde eskualdeko proiektu bat da, baina egin dute bideragarritasun azterketaren arabera, ez dirudi bertako herrietan denda bana jartzea posible litzatekeenik. "Agian aurrerago desdoblatur eta beste puntu bat sortuko dugu, baina ez dago oraingoz erabakita".

Leku askotatik etorri dira Labore Oarsora inspirazio eta aholku bila. Eta hortik sortu izan dira, adibidez, Labore Bilbo, "baimena eskatu ziguten izena erabiltzeko", edo oraintsu jaio den IKO Igeldoko Kooperatiba. Zabal hartzen dituzte denak, baina hasieratik ohartarazita: "proiektu bakoitza eskualde edo herritik bertatik pentsatu behar da; hau esportagarria da, baina leku bakoitzak bere ezaugarriak ditu".

Bukatzeko, honelako proiektu baten arrakastaren gaioak bi izan direla dio Legorburuk: "bi K, kazkagorra eta konpromisoa, proiektu serio eta profesionala da, eta horrelaxe hartu behar da".



BERRIAK

COMENTARIO DE ECVC PARA LA CONSULTA DE LA COMISIÓN EUROPEA RESPECTO A LA VISIÓN DE LA UE SOBRE EL FUTURO DE LAS ZONAS RURALES

Para la Coordinadora Europea Vía Campesina (ECVC), la situación actual de las zonas rurales de la Unión Europea es particularmente preocupante debido a los modelos económicos que se han promovido e instalado en esas zonas.

El sector agrícola, que es el más importante de las zonas rurales, se está reestructurando debido a las políticas agrícolas, energéticas y alimentarias injustas que benefician a las grandes explotaciones industriales y favorecen la agricultura orientada a la exportación. Así pues, este sistema empuja a los pequeños agricultores a la quiebra, que a menudo emigran a las zonas urbanas. En el período 2000-2012 se perdieron 4,8 millones de empleos a tiempo completo en la agricultura de la UE. Europa perdió un tercio de las pequeñas explotaciones agrícolas entre 2003 (12 millones de explotaciones) y 2013 (8 millones de explotaciones). Al mismo tiempo, las grandes granjas poseen cada vez más tierras. Alrededor del 20 % de las explotaciones agrícolas de la UE reciben el 80 % de las subvenciones agrícolas de la UE, lo que hace que la PAC sea ilegítima para los pequeños agricultores y los ciudadanos en su conjunto. Además, la PAC es cada vez más criticada por sus repercusiones en el clima, ya que, si bien la agricultura industrial cuenta con un fuerte apoyo, la agricultura en pequeña escala y agroecológica suele quedar marginada. Por último, la falta de mecanismos suficientes de regulación de los mercados y los precios ha llevado al sector agrícola a acabar con el empleo y a dejar a los trabajadores en situación de penuria y particularmente vulnerable.

Por lo tanto, para ECVC, la construcción de una nueva visión para las zonas rurales debería comenzar precisamente con un cambio radical en la visión de la política agrícola y comercial dentro de las instituciones de la UE y los Estados miembros.

Las instituciones europeas suelen proponer la tecnología y la innovación técnica como soluciones a estos problemas, ocultando así el hecho de que estos problemas se deben principalmente a la decisión política de tratar el sector agrícola como un sector comercial como cualquier otro. Además, esta elección está impulsada principalmente por el afán de lucro de los grupos transnacionales y comerciales.

Con la despoblación de las zonas rurales, el creciente impacto del cambio climático y la aparición de la pandemia de COVID-19, los encargados de formular políticas de la UE deberían aprovechar la oportunidad para examinar de nuevo el sector agrícola, basándose en algunos aspectos clave:

• Revitalizar las zonas rurales y renovar las generaciones

La despoblación y el consiguiente envejecimiento de la población en las zonas rurales deben detenerse mediante la creación de empleos agrícolas y no agrícolas y el aumento de la oferta de servicios públicos, en particular en los sectores del transporte, la salud y la educación/formación.

• La creación de modelos agrícolas sostenibles a largo plazo para la resistencia de nuestros sistemas alimentarios

Es necesario desarrollar la agricultura campesina para aumentar el número de pequeñas y medianas explotaciones campesinas en las zonas rurales y, por lo tanto, detener el «fenómeno» de las expansiones de las granjas industriales. En los próximos diez años, la mitad de los campesinos se retirarán. Sin instalaciones adecuadas, los territorios rurales se vaciarán y la industrialización continuará su destructiva labor de autonomía, remuneración de los campesinos y del planeta.

La capacidad de recuperación de nuestros sistemas agrícolas y alimentarios debe apoyarse en detener las políticas liberales y la especialización de los sectores agrícolas sujetos a la ley de los mercados internacionales y dependientes de las exportaciones.

Debemos desarrollar la autonomía de las granjas, por ejemplo, produciendo alimentos de calidad para el ganado en la granja, a fin de hacer frente a los actuales desafíos ambientales, económicos y sociales.

Los agricultores deben tener el control de toda la cadena de producción y obtener precios remunerativos por los productos agrícolas. Los precios de los productos básicos agrícolas no deben depender de los precios mundiales.

Es necesario reubicar la producción agrícola para lograr una mayor soberanía alimentaria, desarrollar el procesamiento en las granjas y desarrollar los mercados locales y los circuitos de proximidad. Se ha reducido considerablemente el número de infraestructuras de procesamiento, como los mataderos locales, y por consiguiente, se han abandonado las cadenas de suministro locales. La adición de valor a los productos locales puede dar vida a los territorios rurales más aislados (como las zonas montañosas) con pequeñas estructuras y un mejor contacto con los consumidores. Avanzar sobre la compra pública de alimentos de cercanía o agroecológicos puede suponer un avance para el desarrollo rural.

La regulación de los mercados, el reequilibrio de la cadena de valor en beneficio de los agricultores y el freno a la competencia desenfrenada son medidas urgentes para garantizar unos ingresos dignos. A partir de mañana, la alimentación y la agricultura deben convertirse de nuevo en una de las piedras angulares y los cimientos de las sociedades.

Es preciso dar acceso a las semillas de los agricultores y detener todos los intentos de desregulación de los OMG, incluidas las nuevas técnicas genómicas, mediante la aplicación estricta de la legislación europea vigente sobre los OMG y la prohibición de las patentes sobre plantas y animales. Estas patentes están en flagrante contradicción con los derechos de los campesinos y los cultivadores, tal como se definen en el artículo 9 del <http://www.fao.org/plant-treaty/overview/texts-of-the-treaty/es/> y en el artículo 19 de la Declaración de las Naciones Unidas sobre los Derechos de los Campesinos y otros Trabajadores Rurales (UNDROP).

Debe resolverse la cuestión del acceso a la tierra. Garantizar un acceso justo a la tierra para los pequeños agricultores, los campesinos y la agroecología me-

dante la elaboración y aplicación de una directiva de la UE sobre la tierra que aplique las directrices del CSA sobre la tenencia de la tierra a nivel europeo, y poner fin a todas las formas de especulación de la tierra a nivel europeo.

Hay que innovar para mejorar el trabajo campesino y respetar los territorios: no se tratará de una digitalización excesiva, sino de calibrarla a las necesidades específicas de cada territorio y de la producción campesina.

• PAC - segundo pilar del desarrollo rural

El presupuesto de la PAC para el segundo pilar debe ser coherente con una visión de zonas rurales vibrantes, prósperas y sostenibles. Los recortes presupuestarios de los 2 pilares propuestos para la PAC post-2020 son especialmente negativos y van a causar graves problemas especialmente en la política de Desarrollo Rural.

El apoyo a los jóvenes y a los recién llegados, a los territorios desfavorecidos como las zonas de montaña, a la transición agroecológica y a las medidas agroambientales y climáticas (DFAIT) debe reforzarse si Europa quiere alcanzar los objetivos establecidos en las estrategias De la granja a la mesa y Biodiversidad, en el marco del Pacto Verde. El objetivo de que al menos el 25 % de las tierras agrícolas se dediquen a la agricultura biológica para 2030 es el que debe apoyarse y acompañarse de medidas que apunten a largo plazo y a cambiar el modelo agrícola, en una perspectiva agroecológica y de autonomía agrícola. Con este fin, la ayuda del segundo pilar para el desarrollo rural es vital para apoyar una transición a largo plazo, plurianual y sostenible.

• Respetar los derechos de las personas que viven en zonas rurales

La capacidad de recuperación y el desarrollo de las zonas rurales no pueden basarse únicamente en el

aspecto económico sino también en el social. Las políticas de desarrollo agrícola y rural deben garantizar salarios y condiciones de trabajo adecuados para los trabajadores rurales, protegiéndolos del abuso y el despido, con medidas específicas y adecuadas para los trabajadores de temporada, así como para los migrantes desplazados con problemas de papel o en situación de residencia precaria.

Los agricultores y los habitantes de las zonas rurales deben participar en las decisiones de política con el fin de mejorar la gobernanza en las zonas rurales mediante una mayor consulta con la población rural.

• Cambiar la política comercial europea

Una nueva visión para las zonas rurales debería incluir una nueva política comercial para los productos agrícolas, incluida la renegociación de las normas de la OMC y la exclusión de los acuerdos comerciales que no respeten los derechos de los agricultores. El comercio agrícola debe replantearse en el contexto de una reubicación social y ambiental de la producción agrícola, sin la cual no será posible la reubicación sostenible de la producción.

• Cambiar la política de competencia

Deben establecerse mecanismos para proteger los ingresos de los agricultores mediante la política de competencia. Afirmar la condición de la agricultura como excepción en este ámbito e impedir las distorsiones de la competencia mediante la importación de productos agrícolas a precios abismales para los ingresos de los productores. Es necesario fortalecer su posición en la cadena de suministro de alimentos y desarrollar auténticas organizaciones de productores para la gestión de la oferta.

ECVC, Septiembre 2020



EHLG, un actor comprometido con la instalación y la transmisión en Iparralde

Etaldeak transmititu, laborari gazteak laborantzak plantatu : hau da laborantzak duen desafio handi eta bikoitza. Hau da ere Euskal Herriko Laborantza Ganbarak jorratzen duen lan sail nagusi bat. Geroari beti begira, laborantza herrikoian instalatzea eta transmititzea lehentasuna du EHLG-k, laborari izaitea etorkizun oneko ofizioa izan dadin.


En 2019, numerosas y diversificadas instalaciones con EHLG

El análisis de los datos oficiales de la instalación de 2019 muestra la diversidad de perfiles de jóvenes y proyectos de asentamiento apoyados de Euskal Herriko Laborantza Ganbara: asociación con familiares, adquisición de una finca ajena a la familia o creación de una nueva explotación; sistemas productivos clásicos de Iparralde o producciones diversificada; con transformación, en circuitos corto o valoración en cadena larga,...

Este año también confirma la creciente proporción de personas que quieren poner en marcha un proyecto y que recurren a la EHLG para preparar su instalación: 40 de 79 expedientes validados en Iparralde para la ADI (prima a la instalación de jóvenes) en la CDOA (nivel departamental) en 2019. Desde 2015, la proporción de casos de Iparralde que seguimos ha aumentado alrededor del 5% por año. Para 2019, hay 40 instalaciones en 33 fincas, con 7 proyectos que dan como resultado dos instalaciones simultáneas en la misma finca.

Sistemas de producción variados.

A imagen de la agricultura local, la mayoría de proyectos monitoreados por Euskal Herriko Laborantza Ganbara presenta una orientación principal de ovejas lecheras. Horticultura orgánica con mercados diversificados y cría de ganado de carne con venta directa son los otros sistemas más representados. Una decena de proyectos se distribuye uniformemente entre varias producciones, que contribuyen a la creciente diversidad de la agricultura en nuestro territorio. Nuestra estructura apoyó a 17 proyectos en agricultura orgánica, es decir tres cuartas partes de las instalaciones de agricultura ecológica en Iparralde.



Los 33 proyectos apoyados por EHLG tienen una SAU promedio de 35 ha en total, es decir, 19 ha /agricultor. El 60% de estas fincas tienen una SAU entre 10 y 50 ha y el 25% más de 50 ha. Fincas con más de 50 ha constituyen el 40% de los expedientes acompañados por la Cámara departamental, con una SAU promedio de 29 ha/agricultor. Esto refleja nuestro deseo de fomentar el mantenimiento y la creación de pequeñas y medianas granjas, para promover el empleo y mantener una agricultura dinámica. Esto pasa por la búsqueda de valor añadido para garantizar unos ingresos satisfactorios a los agricultores en superficies moderadas (producciones amparadas por Denominaciones de Origen, transformación en granja, cadenas de suministro cortas, sistemas más autónomos/económicos).

Cuenta con instalaciones no familiares (HCF)

Las instalaciones en el marco familiar (principalmente en sociedad) constituyen casi 2/3 de los proyectos que seguimos. En estos casos, el apoyo se centra en los problemas específicos de estas instalaciones familiares: patrimonio, aspectos legales y humanos, etc.

Sin embargo, la agricultura atrae cada vez a más personas ajenas a la familia. EHLG tiene apoyado en 2019 a dos tercios de los 23 líderes de proyectos HCF (fuera de la familia) en Iparralde. En estos casos necesario un apoyo




en profundidad principalmente en creaciones de nuevas explotaciones, individualmente o con dos socios, y en los casos de una asociación en una granja existente. Para ayudar a estas personas a realizar su proyecto, abordando todas las dimensiones del proyecto a diseñar, así como planificar y hacer que el inicio de la actividad sea lo más seguro posible.

Inversiones moderadas para fomentar la resiliencia

Para proyectos apoyados por EHLG, el monto total de la inversión durante 4 años la instalación varía entre 35.450 € (para un pastor sin tierra) y 346.500 € (para 2 socios con edificación), con una media de 175.000 €. Los expedientes apoyados por la Cámara departamental tienen un nivel de inversión media de 282.000 €, es decir, un 60% superior (la diferencia es la misma en función de si inversión por proyecto o por agricultor).

Inversión de previsión global por proyecto



El 52% de los proyectos monitorizados por EHLG prevén una inversión total entre 100.000 y 200.000 €, durante 4 años

